


VILLA ITXASGAIN
D MAILA**ALDAPETA 62**

Migel Irastortza, 1904

Deskribapena

Aldapetak eta La Fe pasealekuak bat egiten duten puntuak mugatzen du partzela; hau bi aldaparen arteko zerrrenda luzea da, eta lorategia terraza baten gisan geratzen da, ertzak baino gorago. Etxea bera angelu zorrotzean dago, eta oinplanoa bihurtzeko egokitzen zaie, hain zuzen. Erremate gisa, begiratoki-dorre bat dauka partzelako leku estrategikoan, horrek badiarako bistak eskaintzen ditu. Elementu hori udaldiko bizitoki askotan errepikatzen da, eta kasu honetan ezin hobeto egokitzen da. Egiaz, etxearen fatxada nagusia ere badiarantz begira dago, eta konposizioan erdiko atala dauka, oriel window motako poligono-begiratoki hegaldun batez, bi horma piko simetrikorekin batera. Eraikineko txapitula bakarra, jakobinoa, atzeraemanda dago, bolumen horretako terraza laua baliatuta. Etxearen sekzioa kale mailaraino iristen da, eta erdisotoa, beheko solairua, lehena, bigarrena eta teilatupekoa hartzen ditu. Arkitektura hizkuntza sinplea da, apaindura gutxikoa: azalera emokatuak ditu, teilatu hegala egurraren imitazioan apaindua du, etxea jatorriz eraiki ondoren jasotako dorrean, estilo menditarreko hizkuntzaz. Lorategirantz, begiratoki-terrazza bat zeukan etxeak, hego fatxadan, baina itxi egin zuten, geroago. Geroago beste gorputz bat ere eraiki zuten, dorrearen alboko terraza itxitura, villako jatorrizko sarbidea aldatu zuena. Halaber, horma pikoen azpiko baoen ordez, ardatzetatik aldentutako bao binakakoak jarri zituzten.

D mailako berariazko babes araubidea

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: Terraza lorategira itxi zuen hegoaldeko gorputza eta dorreari atxikitako gorputz berria. Horma pikoen azpian binaka jarritako hutsuneak.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: fatxadako apaindura erliebeak. Estalkien zurezko egitura eta dorrearen hormigoizko teilatu hegala.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe. Ordenantza orokorren 21.8 artikuluan baimendutako jarduketak villako hegoaldeko fatxadarekin kontaktuan egonez gero baimenduko dira, villako lorategirantz. Baimenduta dago hegoaldeko fatxadako baoak lorategirantz berrantolatzea, eta ekialderantz, Aldapetako aldaparantz, dorrea izan ezik. Azalera emokatuak, inpostak eta bao berrien formatu bertikala mantenduko dira.
4. Nahitaezko lehengoratzak: Banakako baoak berreraikitzea, horma pikoen azpian.